



AMEZKETAKO UDALA

HONDAKINEN TRATAMENDUARI BURUZKO AHOLKUAK

1) Hondakin organikoa plastikorik gabe bota ontzietara.

Konpostagarri diren plastikoak ere ezin dira organikora bota, plastikoak ez duelako konpostatzen uzten, horrela organikoa usteldu egiten da eta usain txarragoa dario.

Bakoitzak bere ontzia errespetatzea eskatzen da.

2) Errefusari ere erabilpen egokia eman behar zaio.

Errefusara botatzen diren hondakinak asko gehitu dira, eta noski, edozer hondakin ezin da errefusara bota, SAILKATU EGIN BEHAR DA eta gaikako bilketa indartu behar dugu danon artean.

Mesedez, hondakinen tratamendua zintzo egin dezagun ingurunearen eta pertsonen (amezketarren) mesederako.